

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Kulturak 150.000 euro banatuko ditu zinematografiako bederatzi proiektu nafarren artean

100.000 euro banatu dira sei film labur eta ertainen artean eta 50.000 euro hiru film luzeen artean

Jueves, 09 de octubre de 2014

Kulturako Zuzendaritza Nagusiak 150.000 euro banatuko ditu zinematografiako bederatzi proiekturen artean. Haietatik, 100.000 sei film labur eta ertain ekoizteko erabiliko dira, eta beste 50.000 3 film luzeen ekoizpen-fasearen aurreko lanak finantzatzeko (gidoia idaztea, "casting"-a egitea, ekoizpen-plana egitea, dokumentazio-lanak, filmatzeko tokiak aurkitzea...).

Lehen deialdiko irabazleak honako hauek izan dira. Simetría Producciones-en *180º Rumbo a la luz*, (19.000 €); Navarra de cine-ren *Ya sé donde está el dinero, mami* (35.000€); Ion Mikel Caballeroren *Cenizo* (15.000€); Iñaki Alforjaren *Motxila 21 London tour*, (2.663€); Daniel Burgui eta Andrés Salaberriaren *Las pelotaris*, (14.337€) eta David Arratibelen *Converso* (14.000€),

Film luzeen aurre-ekoizpena diruz laguntzeko deialdiak, berriz, ondorengo proiektuak hautatu ditu: Arena Comunicación-en *Ciudades para la vida* (18.000€), Andrea Jaurrietaren *Ana de día* (15.285€) eta Daniel Castro/Tormenta Producciones-en *La herencia*, de Daniel Castro/Tormenta Producciones (16.715€).

### Film labur eta ertainak

Film labur eta ertainetan, deialdiak 100.000 euro banatzen ditu fikzio, dokumental, esperimendazio edo animaziozko obrak ekoizteko, eta 60 minutu baino gutxiago irauten dutenak, zinema-aretoetan, telebistan edo Interneteko plataforman jendaurrean emateko. Proiektuek filmatze-lana



Ion Mikel Caballero-ren "Cenizo" kartela.

2014ko abenduaren 31 baino lehen amaituta izan beharko dute.

Diru-laguntza horietaz balia daitezke pertsona fisikoak nahiz legez finkatutako zinematografia-enpresak. Gainera, eskatzen zen, zuzendaritzaren arduraduna nafarra edo bertan errolatuta izatea 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen; ikus-entzunezko obraren erdia behintzat Foru Komunitatean filmatu behar zen. Animaziozko proiektu bat bada, baliabide tekniko nahiz giza baliabideen % 50 Nafarroakoak izan behar zuten. Gainera, [diru-laguntzez baliatutako film labor eta ertainek](#) proiektuaren kostu guztia betetzeko beharrezko finantzaketaren % 30 izan eta egiaztatu behar zuten, gutxienez.

Los proyectos y cantidades concedidas son las siguientes:

SIMETRÍA PRODUCCIONESen **180º RUMBO A LA LUZ** (19.000 €), Iratxe Pérezek zuzendu eta Simetría Produccionesek ekoiztutako film dokumentala (55 minutuko film ertaina). Hiru helburu betetzeke dituzten hiru pertsonen istorioa kontatzen du. Pelikularen gai nagusia desgaitasuna da, baina hiru ikuspegitatik begiratuta: oztopo fisikoak, emozionalak eta sozialak.

NAVARRA DE CINEren **YA SÉ DONDE ESTÁ EL DINERO, MAMI** (35.000 €), Arturo Cisnerosek zuzendu eta Navarra de Cinek ekoiztutako film dokumentala. Egileak amak egiten dion galdera bati erantzuna eman nahian dabil bere sorlekura itzultzen denean, lanik gabe eta epe laburrean proiekturik ez duela: "Non dago dirua?"

ION MIKEL CABALLEROn **CENIZO** (15.000 €). Ion Mikel Caballeroren fikziozko film laburra da, eta bertan neskatala bat fantasiaz nola baliatzen den kontatzen da bere etxearen galerari aurre egiteko. Sustraien, iraganaren balioa eta haiek zaintzeko borroka, kontrako bi ikuspegiaren azpian kontatutako istorioan.

IÑAKI ALFORJAREN **MOTXILA 21 LONDON TOUR** (2.663 €), Iñaki Alforjak zuzendutako film dokumentala (25 min), Down-en sindromea duten pertsonak ikusarazten dira ikuspegi baikor batetik, paternalismorik gabe. Irri egiten, maitemintzen, abesten, haserretzen, txantxak egiten, kezkatzen dienaz hitz eginez, arazoei aurre eginez... ikusten ditugu.

DANIEL BURGUI eta ANDRÉS SALABERRIren **LAS PELOTARIS** (14.337 €), Daniel Burgui eta Andrés Salaberriren film labor dokumentala (20 min), euskal pilotako emakumeari buruzkoa. Baikortasun, gaintitze eta paradoxaz betetako istorioa.

DAVID ARRATIBELen **CONVERSO** (14.000 €), film ertain dokumentala (55 min). Arrotxapeara heltzen den organo viktoriar baten istorioa, liturgia klasikoaren defentsa errito katolikoko, eliz musikako aire modernoaren aurrean eta haren eragina fededunen arima sagaratzen; pertsona bat konbertitzeko prozesua, nola heltzen den fedea izatera eta zein neurritan fede horrek aldatzen duen zure bizitza; gizarte garaikideak transzendentziarekin zer harreman duen eta gaur bizi ditugun balioen krisi ukazina. Diru-laguntza 2014ko film luzeen aurre-ekoizpenerako

Kulturako Zuzendaritza Nagusiak ere 50.000 euro banatu ditu, fikziozko film luzeak, dokumentala edo animaziozko pelikulak ekoizteko proiektuen garapena prestatzeko laguntza-deialdiaren bidez.

Aipatu behar da, ondorio horietarako, "film luze"-tzat jotzen dela 60 minutu baino gehiagoko ikus-entzunezko obra oro, zinema-areto komertzialetan, telebistan edo Interneteko plataforman emateko direnak.

Proiektuaren garapen-fasekoak diren lanak ekoizpen-fasearen aurretik egindako haiek dira, eta bereziki: gidoiaren behin betiko idazketa, "casting"-a egitea, ekoizpen-plana egiteko bideratutako lanak, dokumentazio-zereginak eta filmatzeko lekua topatzea, Estatuko eta Europako laguntzetarako proiektuak lantzea, baliabide ekonomiko eta hasierako salmenta-planak kudeatzea, aurrekontua eta finantzaketa-plana egitea, proiektuko alderdi teknologikoei lotutako lanak.



Daniel Burgui eta Andrés Salaberriren Las pelotaris.

Proiektuak 2014ko abenduaren 1a baino lehen amaitu eta eman beharko dira.

Laguntza horretaz balia daitezke EBeko kide den estatu bateko Zinematografiako Enpresa Erregistroan produkzio-etxe modura inskribatuta dauden Europar Batasuneko estatu batean finkatutako ekoizpen zinematografikoko enpresak (enpresa espainiarren kasuan, ICAAn erregistratuta izatea). Nolanahi ere, film luzearen zuzendaritzaz arduratzen den pertsona nafarra edo Nafarroan errolatuta izan behar zuen 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen; beste baldintza batzuk zeuden, gainera, pelikularen gai nagusia Nafarroari edo bertako pertsonaia, idiosinkrasia edo Komunitateko berariazko beste edozein dimentsiori lotutakoren bat izatea, eta produkzio-etxearen helbide fiskala Nafarroan egotea garapen-proiektua egiteko prozesu guztian.

Proiektuek kostu guztia betetzeko beharrezko finantzaketaren % 20 gutxienez izan eta egiaztatu beharko zuten, laguntzak jasotzeko aukerarik gabe geratuz, deialdiaren unean jadanik filmaketa hasita zeuden proiektuak.

Eskatzaile bakoitzeko gehienez ere 20.000 euroko zenbatekoa erabaki zen.

Honako hauek izan dira [proiektu onuradunak](#):

**ARENA COMUNICACIÓN** en **CIUDADES PARA LA VIDA (18.000 €)**. Arena Comunicación produkzio-etxe nafarraren film dokumentala, aurrez Pura Vida ekoiztu zuena eta egun Muros izeneko pelikula filmatzen ari dena.


Pablo Iraburu eta Francesc Relea-k zuzenduta, ikaragarri sufritu duten lau hiriren "arima"-ren bila ari den bidaia kontatzen da, eta gaur egun, berritutako aurpegi batekin itxaropena ematen dutenak. Beirut, Sarajevo, Kigali eta Medellín-en itxuraldaketa erreturatu da.

**ANDREA JAURRIETA** en **ANA DE DÍA (15.285 €)**. Fikziozko film luzea eta Andrea Jaurrietaren opera prima. Zuzendari nafar honek film luzerako jauzia egiten du aurrez bost film laburretan gidoilari edota zuzendari eta ekoizpen modura aritu ondoren. Proiektu hau AECID bekarekin saritu zen Erromako Espainiako Errege Akademiaren 2010-2011n, eta aurten garatzen ari da Madrilgo Ikasleen Egoitza historikoan sorkuntzako beste beka bati esker, Madrilgo Udalarena oraingoan.


Bere betebeharrak guztiak betetzen hasten den ordezkotzat agertzeak Anari, estreinako, erabateko anonimotasuna ematen dio; anonimotasun hori errealitateari aurre egiteko aukeratzat jotzen du eta eramaten zuen bizitza atzean utzi eta beste bati ekiteko aukeratzat.

**DANIEL CASTRO/TORMENTA PRODUCCIONES** en **LA HERENCIA (16.715 €)**. Daniel Castro zuzendari nafarraren fikziozko film luzea, eta iaz bere 1. film luzea estreinatu zuen: La ilusión. La herencia krisia pairatzen duen familia bati buruz hitz egiten du, krisiari etsipenez egiten dio aurre, ezer ez gertatuarena egiten du era patetiko batean, edo gauzak lehen bezalakoak izan daitezela saiatzen. Eskasia horrek nola aldatu gaituen aztertzen da, betirako beharbada.


## Galería de fotos



"Ana de Día"-ren fotograma



"Ciudades para la vida"-ren fotograma



"Converso"-ren fotograma.